

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1997, martxoak 14



Korrika 10

Euskararen alde antxintxika




San Andres auzoa, 8
ARRASATE
T. 79 50 12-79 59 99
F. 79 64 11

GRUA ZERBITZUA
Telefona: 989 34 98 29
Zerbitzua 24 ordutan,
urteko 365 egunetan




Amaia lurrindegia
Barrenkalea, 25/ 76 16 97



P. Manso optika
Irizar, 2/ 76 27 86



Galarreta oinetakoak
Irizar, 2 behe/76 12 39



Lazkano oinetakoak
Barrenkalea 15-17/ 76 25 03

Sanjose eguna
(zure)
aitaren
eguna



Irudi bitxitegia-erlojudenda
Ibargarai, 2/ 76 51 65




Kilika oparidenda
Barrenkalea 18/ 76 34 08

Bergarako
hamar denda hauetara
nahi beste
opari egiteko
aukera daukazu!



Garnish poltsak
San Pedro, 12/ 76 03 57



Peñalba oparidenda
Irala, 1/ 76 10 49



Foto Albeniz
Ibargarai, 12/907-83 47 84

BERRIGARA

BERRIGARA JAUREGIA
48070 Bergara
Tel: 94 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Agintaratzaila:

Agustin Elkarte.

Zuzendaria:

Agustin Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Bereko Azkarate

Z E B E R R I D A ?

XABIER LARRAÑAGA

Kapirixoko kidea

- Zer erabaki zen joan zen asteko batzarrean?

- Azkenean batzarra bertan behera geratu zen, jende batek ezin zuelako etorri. Dena den lanean jarraitzen dugu; trikuharrien garbiketarekin bukatzeko gure eremuan (17 trikuharri dira denera) Atxolintxikiko trikuharria garbitzea besterik ez da falta eta, horrez gain, Azkoitian beste bat falta da, Keixetakoa hain zuzen. Azken honetan 8 bat trikuharri daude baina 10 bat pinu daude gainean eta jestioak egin behar harko ditugu Azkoitiako Udalarekin baimenak lortu eta ea laguntzaren bat ematen diguten.

- Beste proiekturik?

- Iaz egin zen bezala, aurten ere, Atxontxabale-



tako elkartearekin batera, maiatzeko lehen domekan Pagobedeinkatua meza eta ondoren Irukerutzetan bazkaria eta erromeria antolatuko dugu. Bitoriano Gandiaga etorriko da meza ematera. Eta horrez aparte irail aldera auzoetako seinalizazioa egin nahi dugu. Auzo bakoitzean dauden baserriak edo ondare artistikoa seinalizatu.

“Irukerutzetako meza eta erromeriara Bitoriano Gandiaga etorriko da aurten”

I T U R R I O N E T I K

Pazkuetako egitarauaren azalerako pintoreen arteko lehiaketa

Udalak Pazkuetako jaietako egitarauaren azala herriko pintoreei enkargatzea erabaki du aurten. Parte hartzaileek jaien inguruko koadro bat egin behar dute (gutxienez 42 x 30 zentimetrokoa) eta martxoaren 24rako eskaria aurkeztu behar da Udaletxean. Koadroa, berriz, apirilaren 15erako bukatuta egon behar da. Jai Batzordeak, Bearten aholkularitzarekin, 1997ko azala eta baita 1998koa egingo dituzten artistak hautatuko ditu. Irabazleak 100.000 pezeta jasoko ditu eta koadro irabazlea Udalaren esku geratuko da.

E S A N
D U T E

“Bergarako Orfeoia, Antiguako Abesbatza Lehiaketako partaide zaharrenak, gero eta kalitate hobea eta maila altuko koro baten indarra dueña erakutsi zuen. Era berean, Javier Bello Porturen *Deux Chansons* lanean agerian utzi bezala, gustu fina ere agertu zuen Orfeoia. Kantuari diren bitartean, David Azurza zuzendariak sentimenduak azaltzeko estiloa ezarri die bere abeslariari”

EMECE

Musika kritikoa
EL DIARIO VASCO

“Beti eskatu izan diot aholkua aitari eta beti egon da nirekin. Berak ere begi onez ikusten zuen Realarekin akordio batera heltzea. Kanpoan jokatzeko aukeraren bat zegoela planteatu izan denean, kanpora joatea ez dela batere erreza komentatu izan dit beti”

AGUSTIN ARANZABAL
Realeko jokalaria
EL DIARIO VASCO



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Pazkuetako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du



EL CLUB DE LAS PRIMERAS ESPOSAS

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30
(Ikuslearen eguna).

Udal Musika

Bandaren kontzertua izango da domekan, eguerdiko 12:30etan Novedades aretoan. Udal Bandak honako piezak eskeiniko ditu: *Lo cant del valencia* (Sosa), *Olympica* (Van der Roost), *Bailando con lobos* (John Barry), *El asombro de Damasco* (Luna) eta *La danza* (Rossini).



Tanttaka antzerki taldeak *El florido pensil* lana eskeiniko du datorren eguen eta eguakitzean Novedadesen. Eguenean, 9etan, gaztelerazko bertsioa izango da eta eguakitzean euskarazkoa 22:30etan. Sarrerak astelehenetik jarriko dira salgai Kultur Etxean. Mikel Garmendia edota Jose Ramon Soroiz ikusteko aukera.



Zinea

Hainbat urte igaro ondoren, ikastetxean elkarrekin ibilitako hiru lagun bilduko dira, bakoitzaren gorabeheren berri jakin ahal izateko. **Brenda (Bette Midler)** elektronika munduko enpresari ospetsu batekin ezkondu zen; **Elise (Goldie Hawn)** zine aktorea dugu eta, azkenik, **Annie (Diane Keaton)** etxeko andrea da. Berriz elkaturik, euren gizonen kontrako mendekua hartzea erabakiko dute...

Deiak

Hilario Azkargortaren argazki erakusketa Nahikari tabernan.

Odol ateraldia eguastenean, 6 t'erdietatik aurrera, Seminarioan.

Aritzeta abesbatzaren emanaldia Elgoibarreko San Bartolome elizan bihar zapatua 20:00etan.

Musika Eskolako metal eta soka taldeen emanaldia bihar zapatua 20:15etan Antzuolako Udal Aretoan.

Jam aretoa. Gaur ostirala, hilak 14, *Jack Daniels* jaia gaueko 12etan. Sarrera doan.


Ostegunean, hilak 20, *jam session* saioa Chinataun taldearekin, gaueko 9etan. Doan.

Ogia

Domeka 16: Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 14:** Mozos.
- ▼ **Zapatua 15:** Camacho.
- ▼ **Domeka 16:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 17:** Puy.
- ▼ **Martitzena 18:** Guallar.
- ▼ **Eguaztena 19:** Estella.
- ▼ **Eguena 20:** Mozos.



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



Miguel
Gimbert
Hernan

AROTZEGIA / EBANISTERIA

Zokalo, ate, tarima eta armairuen kolokazioa eta era guztietako arotzeria-lanak

Orain ARETXABALETAN,
Basabe Polig. A-2-5 TI/F 79 15 71

Euskara eta musika

EHEk antolatutako manifestazioa eta rock kontzertua

Bihar, zapatua, Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatutako kontzertua izango da Jam aretoan. EHEk Durangoko azokan plazaratutako "Euskal Herriak izan behar du euskalduna eta libre" izenburuko diskaren aurkezpena egingo du bihar 7etatik aurrera, tanborreoren laguntzaz. Ondoren Stronk F.A.S., Niko Etxart, Orioko gangsterrak (ETBko Txiskola saioan agertutako txiste kontalariak) eta Pi LT taldeen emanaldia izango da eta, 12etatik aurrera, berriz, Exkixu, Balerdi Balerdi, Deabruak Teilatuetan, Morau, Txatunga Benbe eta Latzen taldeak izango dira eskenatokia. Biharko kontzerturako sarrerak 1.200 (aurrez erosiz gero) eta 1.500 pezetan (takilan) jarriko dira salgai.

Aurretik manifestazioa

Kontzertua hasi baino lehen, 5etan, EHE taldearen manifestazioa egingo da herriko kaleetan "Euskaldunontzat ez dago justiziarik" lemapean. Manifestazioa, hankapalu, antzerkilari eta txalapartarien laguntzaz, San Martin plazatik abiatuko da eta



Exkixu, zapatuan Jam aretoan izango den taldeetako bat.

jarraian, 6ak aldera, ekitaldi politikoa izango da Plazan bertan. Oraindik ez da ziurtatu nortzuk hartuko duten parte ekitaldian, baina ziurrenik Bergarako EHEko kideren baten partaidetza ere izango da. Gaur egun 20 bat lagun ari dira Bergarako EHE taldean. Hauen laguntza ezinbestekoa izan da biharko ekitaldia Ber-

garan egin ahal izateko; Iñaki Fernandez EHEko ordezkariaren hitzetan, "Bergaran EHEko talde berria eratu da eta prest azaldu ziren ekitaldiaren antolakuntzan laguntzeko. Horregatik, eta Bergara leku aproposa iruditzen zitzaigulako, bertan egitea pentsatu genuen".

EHE taldearen kanpainaren ekitaldirik nagusie-

netakoa biharko kontzertua izango da. Diskoan 13 taldek hartu dute parte; Ange Duhalde, Txomin eta Hurbil Artola, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Bittor Aiape, Gari, Txakun, Guk, Deabruak Teilatuetan, Negu Gorriak, Exkixu, Balerdi Balerdi eta Bizkar Hezurra taldeek hain zuzen ere.

Dagoeneko 8.000 ale inguru saldu dira eta kasetak (1.500 pezeta), zein disko konpaktoak (2.500), oso harrera ona jaso zuen Durangoko Euskal Liburu eta Diskaren Azoka.

la hamar taldek hartuko dute parte Jam aretoko musika jaialdian zapatuan

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

BERGARA

Ramon Maria Lili kalea

Ramon Maria Lili bizi garen bizilagun guztiok, dirudienez tonto hutsak gara. 27 urte luze daramatzagu gure kalea noiz konponduko duten itxaroten eta badirudi egun hori ez dela inoiz iritsi behar.

Kaleko beste edozein biztanleren antzera kontribuzioak ordaintzen ditugu. Gure ustez, ordaintzeari utzi beharko genioke, diru honen aztarnarik ez baita ikusten etxe inguruan.

Hemendik igarotzen zaretenok, badakizue zein egoera penagarrian dagoen kale hau. Askotan lotsa eta dena ematen digu non bizi garen esatea, baina badirudi hori bakarrik gure arazoa dela eta ez herri osoarena.

Ez dakigu nola oraindik udaletxeko jendea ez den egoera lotsagarri honetaz ohartu. Agian, hemendik igarotzeko beldur dira lurrera eroriko diren edo!

Bestalde, aurreko astean udaletxetik bidalitako idatzi bat jarri ziguten portaleko atean itsatsirik. Hitz laburretan esanda, RML kalea konpondu behar zutela jartzen zuen.

Azkenean hasi dira konpontzen baina bakarrik Lasanetik, autobus geltokira doan aldapa. Eta galdetzen diogu geure buruari: RML kalea bakarrik aldapa horretara mugatzen da ala zerbait gehiago dago? Erantzuna: dauden harrri, zulo, koska, zikinkeria eta gauza

guztiaz aparte, hor bizi garen pertsona kopuru haundia dago, baita garajea dutenak ere, eta bertan negozioa duen jendea.

Azkenik, kuriositatea sartu zaizuenoi, buelta bat ematera gonbidatzen zaituztegu. Kontseilu bat: euria egiten badu, mendiko botak jantzi eta makilen bat baldin baduzue, ez ahaztu, behar izango duzue eta.

A.E., RAMON MARIA LILIKO
BIZILAGUN BATZUEN IZENEAN

San Martini buruz

Jaun agurgarriak.

Uste dut, nik bezala batek baino gehiagok idatziko duela Juan Martin Elexpuruk idatzitakoari erantzuna emateko.

Nire ustez, erdaraz esaten den bezala, "confunde el tocino con la velocidad". Ameriketara eta Japonera pertsona ezberdinak joan ziren. Misiolariak, bere borondate onarekin Jesukristok bialdutako lana betetzera "joan zaitezte mundu guztira, ebanjelioa erakutsi eta bataillatu".

Martirien odola, esaten dutenez, kristau berrien hazia da, eta halaxe izan da beti. Ameriketara eta Japonen milaka daude ebanjelioaren dotrina jarraitzen

dutenak. Alderantziz, kolonizatzaileek irabazitakotik ez da geratzen bat ere.

M. A. (NAN: 15.281.708)

Tiira biraka



UNAI AZKARATE

Istripua MAYCen

Salvador Alvarez, 53 urteko MAYCeko langilea, zaurituta gertatu zen asteazkenean, goizeko 8ak inguruan, lantegian izandako istripu baten ondorioz. Karga eramateko makina batekin lanean ari zenean txatarra-parkera erori zen eta makinako baterien azidoa gainera etorri zitzaion. Azidoak hainbat erredura eragin zizkion aurpegian batez ere eta Arrasateko eritetxera eraman zuten eta handik Gurutzetako ospitalera, erreduren zainketa berezietara.

Txoznak

Pazkuetan Bideberrin txoznak jartzeko eskaerak aurkezteko epea datorren apirilaren 25ean bukatzen da. Eskaera orriak Udaletxeko idazkaritzan jaso daitezke.

HILDAKOAK

- Alberto Fernandez Garcia**
Martxoak 6, 64 urte.
- Pedro Urbina Perez de Palomar**
Martxoak 10, 89 urte.
- Begoña Unamuno Etxeberria**
Martxoak 11, 62 urte.
- Sergio Fiz Gueude**
Martxoak 11, 66 urte.

JAIOTAKOAK

- Asier Eguren Lazkano**
Martxoak 4.
- Maddi Alberdi Garmendia**
Martxoak 8.

Eragin desberdina HBk egindako greba deialdiak

Ostiralerako HBk egin zuen greba orokorrerako deialdiak eragin desberdina izan zuen Bergaran. Enpresetan ez zuen ia eraginik izan; erdiko kale eta taberna gehienek ere ez zuten grebarik egin, nahiz eta batzuk itxita egon egun guztian zehar, batez ere tabernak.

Ertzaintzaren presentzia nabaria izan zen egun guztian zehar eta atxilotu ugari izan ziren. Goizean goiz, Arrasatera kotxe karabanan zihoazten hiru bergarar atxilotu zituzten. Hirurei deklarazioa hartu eta isunak jarri zizkieten "autoritatea iraintzeagatik". Goizeko 10:30ak aldera, berriz, kalean Alternatiba Demokratikoa banatzen ari ziren 11 lagun atxilotu zituen Ertzaintzak. Ertzaintzaren komisaldegira deklaratzera eraman ondoren, eguerdi alderako guztiak aske laga zituzten. Goizean eta arratsaldean manifestazioak egin ziren eta ez zen istilurik gertatu, baina iluntzeko 8ak inguruan, epaitegiaren aurrean bilduta zeuden 20 lagunena kontra kargatu zuen Ertzaintzak. Ondorioz, gauean herriko taberna gehienek atea itxi zituzten.



Egunean zehar bi manifestazio egin ziren.

Greba egunaren bezperan, gaueko 10:15ak inguruan, ezezagun batzuk su eman zioten Gonenkalan aparkatuta zegoen Naturgaseko furgoneta bati. Suhiltzaileak sua amatatzen saiatu ziren, baina kotxea aurrealdetik kiskalita geratu zen.

HBren balorazioa

Bergarako Herri Bata-sunak grebaren balorazio politikoa egin zuen prentsaren aurrean asteazkenean Artatse elkarte-an. Aitor Aranzabal eta Mikel Eguren HBko zinegotziak, eta Xabier Arregi Jarraiko kidea izan ziren bertan. Greba deialdiak "erantzun desiguala izan zuen, baina egoera des-

normalizatu baten aurrean gaudela" agerian geratu zela esan zuten. Bestalde, greba egin zutenei eskerrak eman zizkien eta egin ez zutenei "Alternatiba demokratikoari, bakea lortzeko dagoen proposamen bakarrari" bizkarra eman izana eta "errepre-sioa bultzatzen duen estatuari" laguntza eman izana leporatu zieten.

Greba egunean HBren aldetik koakziorik ez zela egon eta bloke demokratikoko kideen, Atutxaren eta komunikabideen jokaera salatu zuten. Ertzaintzari buruz, berriz, "egun guztian zehar zampaketa site-matikoa" egin zutela esan zuten, gazte ugari "identifikatuak, katxeatuak eta atxilotuak" izan zirelako.

ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



Drogamenpekotasunen prebentzioa

Discover drogamenpekotasunen prebentziorako materialaren aurkezpena egingo da datorren ostegunean, hilak 20, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean. Aurkezpen ekitaldia Caritasek, Elizbarrutiko Hezkuntza-ordezkaritzak eta Deustuko Hezkuntza Zientzien Institutuak antolatu dute.

Peruri buruzko hitzaldia

Perun brigadista lanetan hainbat urtetan ibili den Felix Reyk Hego Amerikako herri hartako egoera politiko, ekonomiko eta sozialari buruzko hitzaldia emango du datorren asteartean, hilak 18, 19:30etan Kultur Etxean. Komite Internazionalistak taldeak antolatu du hitzaldia.

Alpeetara eskiatzera

Pol-Pol Mendizale Taldeak Aste Santuan Alpeetara eskiatzera joateko irteera antolatu du. Martxoaren 28tik apirilaren 4ra bitartean Tigneseko eski estazioa joateko aukera izango da. Prezioa 56.600 pezetakoa da eta autobus-literan bidaia, apartamentua eta 6 egunetako forfai sartzan dira.

Aste Santuan Balmasedara

Jubilatuaren egoitzak Balmasedarako irteera antolatu du Aste Santurako. Irteera martxoaren 28an, ostirala, izango da goizeko 9etan Beheko estazioan. Balmasedara iritsi eta bertan Ostiral Santuko prozesioa ikusiko da. Ondoren, Zallan, bazkaria izango da. Menua: fritoak, arrain-zopa, legatza saltsan eta flana. Prezioa: 2.500 pta. Izena jubilatuetan eman behar da.



Oxirondoko azokan superra jartzea ahalbideratuko duen erregelamendua onartu zen Plenon.

Oxirondoko azokan superra jartzeari baietza eman zaio


Bestalde, Gorkako kantina udaberrian zabaldu nahi da

Oxirondoko azokan supermerkatua jartzea ahalbideratuko duen erregelamendua eta Gorkako kantina adjudikatze baldintza-pleguak onartu zituen Udalbatzak joan zen asteko Osoko Bilkuran. Plenoko puntu guztiak EAJ, EA eta PSE-EEko botuekin onartu ziren. HBko zinegotziak ez ziren agertu, Plenoa eguerdiko 12:30etan izan zelako eta lehenago adierazi izan duten bezala, ordu horretan Plenora joatea ezinezkoa zaielako. EAKo Jose Antonio Etxeberria ere ez zen izan.

Oxirondoko merkatuaren funtzionamendua arautuko duen artikuluen aldaketa onartu eta gero, azokan supermerkatua jartzeko baldintza-pleguak onartu eta kaleratuko ditu Udalak. Antza denez, IFA

supermerkatu kateak azokan superra jartzeko kontsulta egin zuen eta Udalak, Oxirondoko postuetako jabeen oniritzia jaso ondoren, azokaren behealdean superra jartzeko aukerari baietza eman dio.

Bestalde, Gorkako kantina adjudikatze baldintza-pleguak onartu ziren. Kantina subasta bidez adjudikatuko da eta urtean 180.000 pezetako gutxieneko errenta jarriko da. Hortik gora eskaintzen den 10.000 pezeta bakoitzeko, 0.2 puntu emango dira. Bestalde, ostalaritza munduan esperientzia izatea, euskara jakitea edota kantina ustiatzeko aurkezten diren bitarteko materialak ere baloratuko dira. Gorkako kantina ekipatzeko 1.700.000 pezeta gastatuko ditu Udalak.



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

Kizkur

ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

Kultur Astea antolatuko da Ipintza institutuan

Ikastetxeak 25. urteurrena ospatuko du datorren astean

Ipintza institutuak Kultur Astea antolatuko du datorren astelehene-
tik eguakitzera bitartean. Astean zehar era askotako ikastaro, txapelketa eta emanaldiak antolatuko dira eta eguakitzean, Kultur Asteari amaiera emateko, Orfeoi Gaztearen eta Fundizinue taldearen emanaldia eta luntxa izango dira.

Institutuko aspaldiko ohitura berreskuratu nahian, iaz ekin zioten berriz ere Kultur Astea antolatzeari. Aurten, gainera, 25 urte betetzen ditu institutuak eta hori ospatzeko bereziki ikasleei zuzendutako jaialdia eta luntxa izango dira ostiralean. Zapatuan, bestalde, bertako langile izandakoek eta oraingoek, ospakizunekin jarraituko dute, beste eskolatak ordezkarri eta

herriko agintari zein parte hartu nahi duten guztiekin batera.

Astelehene-
tik eguenera bitartean hainbat ikastaro, txapelketa eta emanaldi izango dira 12:15etatik aurrera. Besteak beste, txalaparta, txotxongilo, malabar, trikitixa, dantza eta sukaldaritza ikastaroak, eta futbolen, xake eta tenis txapelketak.

Emanaldiak, osteran, 13:15etan hasiko dira: astelehenean, Oihulari Klown taldeak "Zain beti zain" eskainiko du; martitzenean, berriz, Maialen Lujanbio, Andoni Larrañaga eta Jesus Mari Irazu bertsolariak izango dira; eguastenerako, zine emanaldiak iragarri dira eta eguenerako, azkenik, Azpeitiako malabaristen erakustaldia. Ekitaldi guztiak institutuan izango dira.



Oihulari Klown taldea astelehenean izango da institutuan.

San Martinen Estanpa hilaren 21ean ETBtik

Datorren eguakitzean, hilak 21, gaueko 10:00etan emango da San Martinen Estanpa ikuskizuna ETBtik. Bestalde, hurrengo egunean, zapatuan, afaria eta haurrentzako merienda izango dira ikuskizunean parte hartu zutenekin. Afaria eta merienda Udal biltegian egingo dira. Bertan, ikuskizunean ateratako argazkiak ikusgai izango dira. Bestalde, San Martinen Estanpako bideoa laister hasiko da banatzen.

Urteko bilera Sagarpin

Sagarperen urteko bilera izango da martxoaren 21ean iluntzeko 8etan. Ondoren afaria izango da. Afarirako, izena eman behar da martxoaren 16a baino lehen.

Ping-pong txapelketa

Lam-ek ping-pong txapelketa antolatu du datorren asterako Jam aretoan. Astelehen, martitzen eta eguastenean jokatuko dira kanporaketak eta finala domekan.

Honako sariak banatuko dira: 25.000 pezeta eta txapela irabazlearentzat eta 10.000 eta 5.000 pta. bigarren eta hirugarren sailkatzen direnentzat. Etxagi tabernan, Lam jolastokian eta Jam aretoan eman behar da izena eta 500 pezeta ordaindu behar dira.

Gaztetxoentzako irteera

Gartzela Zaharreko astebukaeretak ekintzetan parte hartzen duten gaztetxoentzat 4 eguneko irteera antolatu du Jardunek. Irteera maiatzaren 1etik 4ra bitartean izango da eta izenemate orria hartzeko eguna martxoaren 19an, asteazkena, bukatuko da.

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

IBARGUREN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79

Osasuna

Lesio prebentzioa

- Zer egin daiteke kirol lesioak prebenitzeko?

- Beti ere kirola egin baino lehen, eta amaitutakoan, luzatze-ariketak egitea funtsezkoa da. Ari-keta batzuen bitartez, lan egiten duten giharrak luzatu egin behar ditugu; luzatuta daudela somatzen dugunean 15-30 segundutan horrela mantentzea komeni da, eta kirol egiteari utzi ondoren beste horrenbeste egin behar da. Gutxienez, 10-15 minututan.


- Zeintzuk dira landu beharreko giharrak?

- Hori kirolen arabera ezberdina izaten da. Futboleko adibidez hankak, gerria, orkatilak, lepoa, besoak eta izterondoak landu behar dira nagusiki; igeriketan eta korrikan egiteko ere gihar horiek lantzea komeni da..., azken batean egin behar dugun kirola izan behar dugu kontutan. Kargatutako giharrak erlaxatu egiten dira horrela: entrenamendua hasi baino lehen hotzak egoten dira eta berotu, "esnatu" egin

behar dira; kirola egin ondoren, berriz, berotuta eta kargatuta daude. Deskargatzeko luzaketak egingo dira, errezagoa da kirola egin ostean eta horrela lesio posibleak prebenitzen ditugu.

- Zelako lesioak izaten dira?

- Fibren haustura eta "Harrikadaren sindromea" deritzana. Azken hau daukazunean harrikada jaso izan bazenu be-



J. JABIER AGIRREZABAL
(Masajista)

zala jeikitzen zara, beltzuneak agertzen dira, fibren hausturaz gain, zainen haustura gertatzen delako. Kirola egin baino lehen luzaketak egin behar dira.

- Zelan egin behar dira luzaketak?

- 10 edo 15 modu daude kirol bakoitzeko. Adi-

bidez, paretaren kontra jarri besoekin indarra egin, gerria aurreruntz eta hanka bat bestea baino aurrerago eta biak paralelo. Atzeratuena daukagunarekin egingo dugu luzaketa eta ondoren bestearekin.

- Bestelako gomen-diorik?

- Kirola egin ondoren, dutxan, ur beroa eta ur hotza tartekatzea ere ondo dator. Horrekin odolaren erreakzioa lortzen da. Odol berria irten eta zaharra erretiratu egiten da. Azala gorritu egiten da eta hori seinale ona da odola berriztu egiten delako. Oxigeno berria, freskoa lortzen da. Eta horrez gain, ur beroko bainuak ere onak dira. Ordu erdi batez ur beroko bainua hartuta, izerdia botatzerakoan, toxinak kanporatzen dituzu. Eta errekuperazioa lortzeko ura, fruta eta berdurak hartu beharko dira.

- Eta agujeten kasuan, zer egin daiteke?

- Agujetak muskuluen aktibitate eskasarengatik sortzen dira, fibrak irritatu egiten direlako. Horretarako ura azukarrarekin edo ura eztiarekin (ur beroarekin nahastu eta gero hozten laga) har daiteke. Normalean 3 egunetan izaten dira agujetak. Baina ebitatzeko metodori onena kirola gehiagotan, jarraian, egitea izaten da.

“Ariketa batzuen bitartez kirolean lan egiten duten giharrak luzatu behar ditugu”




Edozein kirol egiteko beroketa egin behar da aurretik.

LARREA
TABERNA
Kale Barren, 17
ANTZUOLA

ARDATZA
Brikolaketa
Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93


- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Denok batera presoak Euskal Herrira



Ikaslea

A. AGIRREAZALDEGI




Gazte Asanblada

AITZOL ALTUNA




Tabernaria

AITOR ARAKISTAIN



Idazlea

J. MARTIN ELEXPURU



Jubilatua

JUAN MARI ERRASTI



Tabernaria

KONTXI KORTAZAR


Beste hauek ere
euren atxikimendua
adierazi dute:

ANGEL BALZATEGI
MARKOS GABILONDO
MARIASUN GURIDI
ANDONI LARRAÑAGA
BEATRIZ LETURIA
RAMON MENDIBIL

Goian sinatu dugunok geure egiten dugu ondorengo eskaera:

1. Nahi duten euskal preso guztiak, berehala Euskal Herrira ekarriak izan daitezela.
2. Gizaki orori bezalaxe, dagozkien oinarrizko eskubideen aplikazio integrala esijitzen dugu: gaiso sendaezinak eta kondenaren 3/4 bete dutenak kalera atera.

**Zuk ere, nahi baduzu,
adierazi zure atxikimendua.
Martxoan zehar, larunbat goizetan,
sinadurak biltzen egongo gara plazan.**




Korrika 10

Euskararen aldeko maratoia

Astelehenean, martxoak 17, Korrikaren X. edizioa helduko da Bergarara. Gaur Oñatin, Arantzazun, hasi eta martxoaren 23an Bilbon amaituko den Korrikak euskara berreskuratzeko jaia izan nahi du. Ohitura denez, euskararen lurraldetasuna finkatu nahirik, Euskal Herriko zazpi herrialdeetatik igaroko da Korrika, hamar egunetan, inolako etenik gabe, 2.150 kilometro eginda.

Orain 17 urteko Korrikaren lehendabiziko edizioak izan zuen hasiera eta amaiera bera izango ditu aurtengo Korrikak. Eta orduko lema Korrika Euskal Herria izan bazen, aurten Euskal Herria Korrika aukeratu da lelotzat. Egunotan, Gozategi taldeak Andoni Egaña bertso-lariaren hitzekin konposatutako abestiari esker, komunikabide denetan jasotzen ari garen mezua. Gaur, eguakitz arratsaldean, Arantzazun hastekoa zen AEK Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak martxan jarritako euskararen aldeko ekitaldi erraldoia.

Urte ilunetan euskararen gordeleku izateagatik eta euskara batuaren sorreran izan zuen garran-



Astelehen arratsaldean herriko hainbat elkartek Korrikaren testigua eramango dute Bergarako kaleetatik.

tziagatik Arantzazutik irteera ematea erabaki zen. Korrika, esan bezala, 70eko hamarkadaren amaieran sortu zen; euskararen egoera larria ikusirik, euskalduntzearen beharrei erantzuteko manifestazio publiko bat egiteko premia zegoela ikusi eta hortik jaio zen Korrika. AEK Euskaltzaindiatik jaio bazen, Korrika-

ren aurtengo edizioak Aita Villasante euskaltzaina (Euskaltzaindiako presidentea izan zen 1970 eta 1988 bitartean) eta, herri ekimen taldeetan euskararen aldeko lan aipagarria egin duten zazpi lagun (herrialde bakoitzeko bat) omendu nahi izan ditu gaurko irteeran. Gipuzkoatik, Eibarko AEKn 25 urtetan lanean izan den

Kontxa Lazpiur izan da omendua.

Korrika Batzordea

Esan bezala, astelehenean Bergarara iritsiko da Korrika. Ainhoa Lete Akulu AEKko euskaltegi-ko ordezkariaren hitzetan, "Bergarako Korrika Batzordea osatzeko deia zabaldu genien herriko

elkarte, alderdi politiko, ikastetxeei etabar. Eta orain dela pare bat hila-betetik bona hainbat bilera egin ditugu batzordea osatzen dugunok: Herri Batasuna, Artatse, Aranzadi Ikastola, San Martin ikastetxea, Maria-ren Lagundia, Euskal Herri-riean Euskaraz, Jardun elkarte eta AEKko ordezkariak izan gara lanean eta, besteak beste, ikastetxeek haurrekin antolatuko dituzten gauzak (muralak, jolasak..., etabar), asteburuko ekitaldiak eta salmenta kontuak aztertu izan ditugu". Ainhoak aipatzen digunez, egunotan gogor egin behar izan dute lan; "lan asko izaten da bai: Korrikak herrian egingo duen ibilbidearen inguruko gauza guztiak zehaztu, tabernetan Karra Korrika izeneko tonbola

banatu, laguntzaileak lortu, atera diren produktu ezberdinak (kamisetak, txubaskeroak, trekking prakak, erlojuak, bisserak eta horrelakoak) saldu..., etab. Jendearen jarrera? Nik uste dut, leku guztietan bezala, hemen ere Korrikaren aldeko jarrera ona dagoela baina hobe ere izan zitezkeen...". Joan zen astebukaeran Korrikaren aldeko postulazioa egin zen Bergaran eta diru dexente batu zen. Ainho Letek azpimarratzen duen moduan, "Korrikan jasotzen den dirua ondo banatzen da, horren beharra dagoelako. Oraindik ere Korrika beharrezkoa da AEK mantentzeko".

Laguntza motak

Aurtengo Korrikan parte hartzeko modu di-

ferenteak daude: kilometroak subentzionatuz (kilometro bakoitza 30.000 pezetan saltzen da), Ko-

rrika iragartzeko atera diren publizitate euskarriak babestuz, Korrika petoak erosiz (egunean bertan

Korrika kulturala

Bergarako Korrika Batzordeak hainbat ekitaldi prestatu ditu Korrikaren inguruan. Gaur eguakitz, Korrika Kulturalaren barruan, herri afaria izango da gaueko 9etan Artatse elkarte. Afal ostean, Kepa Gallegok eta Maria Luzarragak "Tentazioak" izeneko kafe antzerki emankizuna eskeiniko dute. Domekan, berriz, arratsaldeko 7etatik aurrera, jaialdia iragarri da Plazan. Besteak beste, Aranzadi Ikastolako bertsolariak, Jarduneko trikitilariak, ETBko "Txiskola" saioan parte hartu izan duten bergararrak, Aitzol Mujika (Edurne Hurtado eta Josune Aldairekin) edo Xamatx dantzataldearen saioak izango dira. Eta, azkenik, astelehenean, Korrikaren ondoren, haurrentzako jolasak izango dira San Martin plazan, Xipizaro ludoteka eta Jarduneko Gazte Taldearen eskutik.

KABARET IKUTUDUN IKUSKIZUN ERAKARGARRIA



MARTXOAN * MARTXOAN * MARTXOAN

22 Larunbata

gaueko 11:30etan zabalduko dira ateak
gaueko 12:00etan hasiko da ikuskizuna



jam

A flor de piel

1500 pta + Codorniu kopa bat

edo AEKko edozein euskaltegitan), Korrika-lagun txartela erosiz edo Euskadiko Kutxan zabaldu den kontu korronte zenbakian diru sarrera eginez, goian aipatutako material ezberdinak erosiz eta, nola ez, astelehenean bertan herriko kaleetan Korrika eginez.

Euskararen aldeko erakustaldi honen helburua euskararen berreskuratzea izaten jarraitzen du. Iker Altuna AEKko ordezkariak azaltzen duen moduan, *“gure hizkuntza berreskuratzea presazko kontua da. Euskara hizkuntza osoa bada ere, oraindik ez da hainbat lekutara iritsi eta alde horretatik behar haundiak somatzen dira. Eta hori zabaldu nahi diogu jendeari, egunero euskara kalera atera behar dela eta hori lortzeko presa daukagula, presa hori eta Korrika lotu nahi izan ditugu aurten. Euskal Herria osoa kontuan hartuko duen plangintza orokorra aldarrikatu nahi da aurten”*.

Altunak orain arte egindako lanaren balorazio positiboa egiten du; *“Korrika kulturallean jasotako erantzuna oso ona izan da. Aurreko edizioetan, 20 ekitalditik gora antolatu izan dira eta aurten, berriz, denera 200 inguru izan dira. Gorakada nabaria izan da eta datu aipagarria dela uste dut. Antzerkia,*

Korrika Bergararik pasatzen den bakoitzean ikusmin haundia pizten du herrian. Argazkian, orain bi urteko edizioa.



zinema, pailazoak, bertsolariak, kirola (Saralegik errekorra hausteko saiakera tartean)... eta bestelako ikuskizunak izan dira. Aurtengo nobedadeak? Aurten omen-dutakoak, alde batetik, Villasante eta, bestetik, herri ekimeneko jende anonimoa izango direla; eta bestetik lekukoa aldatzea muga pasatu eta ge-

ro egingo dela, nolabait muga gainditu nabian”.

Lekuko berria

Anekdotak gisa, hamargarren edizio honetan testigu edo lekuko berria erabiliko da. Remigio Mendiburu eskulturgileak egurrez egin zuen testigu hura zaharkitua geratu omen da, aurreko edizio-

etan eman zaion erabile-raren ondorioz eta, oroi-garri gisa, Donostiako AEKko bulegoko bitrina batean gorde da. Juan Gorriti eskulturgileak egindako lekukoa berria bada ere, Korrikaren helburu nagusiak hasierako hura izaten jarraitzen du, euskara Euskal Herriko txoko guztietara eramatea hain zuzen.

“Korrikan jasotzen den dirua ondo banatzen da horren beharra dagoelako. AEK mantentzeko Korrika beharrezkoa da oraindik” AINHOA LETE

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
 Ibizar, 3 Ibigarai, 8
 ☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

LAZKANO
Oinetakoak
 Barrenkale, 15
 ☎ 76 25 03

ETXAGI
JATETXEA
 AFARIAK, BATAIOAK,
 JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
 MENUA, GOSARIAK,
 BAZKARIAK...
 Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Korrikaren ibilbidea



Astelehenean Bergarara helduko da

Gaur arratsaldeko 5etan, Arantzazun, Korrikari hasiera ematekoa zen. Hamar egun barru, Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren, Bilbon amaituko da, amaiera jaialdia Arenalean egingo delarik. Bergarara, astelehenean, martxoak 17, arratsaldeko 3rak aldera helduko da. Guztira, 7,5 Km. egingo ditu Korrikak Bergaran. Antzuolatik etorriko da Korrika eta ibilbidea honako hau izango da: Urteaga, Espaloia, Bidekurutzeta, Plaza, Barrenkale, Kruz Gallastegi, Fraiskozuri, Ibargarai, Beheko Estazioa, San Antonio, Martokua, Zubiaurre eta Labegaraieta. Handik Arrasaterako bidea hartuko du Korrikak. Bergaran hauek izango dira Korrikaren testigua jasoko dutenak: Xamatx dantzataldea eta Jardun elkarte, Miguel Altuna, Ipintza eta San Martin ikastetxeak, Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia ikastola, Herri Batasuna eta Artatse, Gestorak, Udaletzeko langileak eta Miguel Altunako ikasle eta irakasleak.





AMONDARAIN

Tolosa/65 33 54



ASTARBE

Astigarraga/55 15 27



AULIA

Legorreta/80 60 66



Araba Autobusak Angiozar auzoa / 76 55 70

Sagardoteg

Ez duzu kotxerik behar

Guztiok dira sagardogileak.

	AMONDARAIN	ASTARBE	AULIA	BIDEBITARTE	ELUTXETA	LARRETA
NAGUSIA	M. Dolores Aierza	J. M. Astarbe	Juan Inazio Etxeberria	M. Jesus Retegi	Juan Joxe Odriozola	Luis Mari Larreta
HELBIDEA	Gure Ametsa Sta. Luzia auzoa, 25	Mendiola baserria	Aulia Enea baserria	Bidebitarte baserria	Elutxeta baserria	Laturu etxea
DENBORALDIA	Urtarriletik apirilera	Urtarriletik apirilera	Abendutik maiatzera	Urtarriletik maiatzera	Apirilera arte. Urte osoan erregetgia	Urtarriletik apirilera
JANARIA	Bertakoa/norberak ekarria	Bertakoa/norberak ekarria	Bertakoa	Bertakoa	Bertakoa	Bertakoa/norberak ekarria
LEKUA	150 lagun, eserita/zutik	160 lagun eserita/zutik	140 lagun eserita/zutik	80 lagun eserita	200 lagun eserita/zutik	100 lagun

OTATZA

Zerain/80 17 57

OTSUENEA

Hernani/55 68 94

REZOLA

Astigarraga/55 66 37





BIDEBITARTE

Oiartzun/49 21 01



ELUTXETA

Urnieta/55 69 81



LARRETA

Amezketta/65 21 27

Gida 97

joan-etorria egiteko!

Kupeletik nahiz botilan saltzen dute.



Txurruka Autobusak San Lorenzo z-g/ 76 12 36

OTATZA	OTSUENEA	REZOLA	TXERTAKADI	TXINDURRI-ITURRI	ZABALA	
Joxe Antonio Iparragirre	Ximon Etxeberria	Joxe Ramon Rezola	J. M. Eskisabel	Rosario Arruti	Ramon Zabala	NAGUSIA
Otatza baserria	Osinaga auzoa	Ipintza baserria	Urtesabel auzoa	Itziar	Garagartza baserria	HELBIDEA
Apirilera arte. Urte osoan erretegia	Urtarriletik apirilera	Apirilera arte.	Urte osoan txotxetik	Urtarriletik apirilera	Urtarriletik maiatzera	DENBORALDIA
Bertakoa/norberak ekarria	Bertakoa/norberak ekarria	Bertakoa	Bertakoa/norberak ekarria	Bertakoa	Bertakoa	JANARIA
170 lagun eserita/zutik	150 lagun eserita/zutik	100 lagun eserita	160 lagun	70 lagun eserita/zutik	150 lagun	LEKUA

TXERTAKADI

Zaldibia/16 13 59 - 88 47 98

TXINDURRI-ITURRI

Itziar/19 93 89

ZABALA


Aduna/69 07 74



Bergarako berbekin osatutako hiztegia

Juan Martin Elexpuru

Bergara aldeko lexikoa izeneko tesisagatik Cum laude kalifikazioa lortu du Juan Martin Elexpuruk (46 urte). Gasteizko Filologia fakultatean aurkeztu zuen tesisa joan zen urtarriaren 28an. Bergaran esaten diren berbak, modismoak, esaera zaharrak, e.a. jasotzen dira lanean. Hiztegi bat da eta hitz bakoitzaren esanahiarekin batera, esaldiak eta anekdotak ere jasotzen dira.



Idazle eta irakasle uberrak 20 urteko mutil koskorra zela ekin zion lanari eta orain dela gutxi eman dio azken ikutua. Tribunalean, Miren Azkarate, Beñat Oiarzabal, Charles Bidegain, Goizon Aizpurua eta Andolin Eguzkitza izan ziren.

- Nahikoa lan eman dizu aurkeztu berri duzun tesisak?

- 20 urte nituenean ekin nion lanari, Seminariotik irten eta Erromara karrera egitera joan aurretik. Azkueren hiztegia hartu, Bergaran esaten diren berben zerrenda egin eta lanean hasi nintzen. Urte batzuk beranduago, Jaurlaritzak emandako beka bati esker, beste hiru bat urte eman nituen buru-belarri; azkenengo ekinaldia, oster, 1989. urtetik honakoa izan da eta tesisarekin bukatu da.

- Ze iturritatik jasoz duzu informazioa?

“Hiztegian jaso ditudan berba asko, laister ez dira erabiliko, gaur egun zaharrenek bakarrik erabiltzen dituztelako”

- Gehienbat aho-hizkuntzako hitzak dira. Iturri idatziak gutxitan erabili ditut, eta erabili ditudanean gaur egun ahoz ere esaten direla ziurtatzeko izan da.

- **Pertsona helduengandik jasoko zenuen batez ere...**

- Horrela da. Hasieran ez nuen grabaziorik egin, baina 1985.etik aurrera, grabagailua erabiltzen hasi nintzen. Pertso-

na helduei elkarrizketak egiten nizkien. Hala ere, magnetofonia itzalita dagoela ere hitz asko jaso ditut, eta baita kalean ere. Magnetofonia oso tresna erabilgarria da, baina orain arteko hiztegi guztiak grabagailua erabiltzeko egin dira.

- **Zailtasunik haundienak non aurkitu dituzu?**

- Mila zalantza izan ditut fitxa-eredua osatzera-

koan batez ere: mugagabean ala mugatuan egin, azentoa ipini ala ez, esanahia euskaraz ala erdaraz jarri, zitak nola transkribatu, esaera zaharrak zein berbarekin erabili... Bestalde, hiztegian 10 mila berba baldin badaude, 150 bat izango dira esanahirik aurkitu ez diodanak, edo esanahia jakin, baina Bergaran erabiltzen den seguru ez nekienak... Modu bateko edo beste-

lako zalantzak izan ditut hitz batzuekin.

- **Batez ere, Bergaran erabiltzen diren berbekin egindako hiztegia da.**

- Bai. Hitzak alfabetikoki ordenatuta daude eta hitzaren ondoan, honen esanahia, adibide bat, non esaten den edo nor esanda jaso den e.a. jartzen ditut. Bestalde, lau kategoriatan banatu ditut hitzak, a-tik dira: hitza asko erabiltzen bada edo oso ezaguna bada a jartzen diot eta zenbat eta ezezagunago izan edo gutxiago erabili, b, c edo d.

- **Hitzari eman diozun kategoriaren arabera, zeintzuk dira hiztegian gehien agertzen direnak?**

- A kategoriakoak 2.000 inguru dira; b-koak, berriz, 2.500; c-koak 3.000 eta d-koak 2.000 inguru. Gehiago dira c eta d kategoriakoak, hau da, gutxien erabiltzen direnak edo ezezagunagoak direnak.

- **Horrek esan nahi du hiztegian jaso dituzun berba asko gero eta gutxiago erabiltzen direla.**

- Bai, erdiak baino gehiago gaur egun ez dituzte erabiltzen gazteek eta hain gazte ez direnek. Argi dago hiztegian jasotzen diren berba asko laister ez direla erabiliko, zaharrenek erabiltzen dituztelako bakarrik.

- **Eta errekuperatuko al dira inoiz?**

- Erabilera normalean guztiz ez ditugu sekula errekuperatuko. Kontutan izan behar da baserri giroko hainbat tresna gaur egun ez direla erabiltzen eta hainbat ofizio desagertuaz doazela. Motordun makinak sartu zi-

renetik batez ere, tresna asko desagertuaz joan dira eta horiekin berben erabilera. Arazo hau hizkuntza guztietan gertatu da, baina horrez gain erdararen interferentzia izan dugu guk. Gaur egun, aitajauna eta loiba bat badirudi hizkuntza ezberdinetan ari direla...

- **Berba horiek auzoetan edota baserrietan gordetzen dira batez ere?**

- Bai, normalean, auzoetan eta baserrietan hobeto gorde dira, erdararen interferentziak ez direlako hain nabariak izan, eta baserri bizimoduari lotutako berbak direlako askotan. Gutxiago izan arren, kalean ere badira oso hitzun onak direnak.

- **Zenbat berba dira guztira?**

- Bederatzi mila berba inguru. Azpisarrerak eta esanahiak kontatuz gero, 12.000 hitz edo izango dira.

- **Egongo dira berba batzuk Bergarako toki batzuetan bakarrik erabiltzen direnak.**

- Bai, normalean, berbaren ondoan zein lekutan erabiltzen den jartzen dut. Badira berba batzuk kalean bakarrik esaten direnak.

“Bederatzi mila berba inguru jasotzen dira; azpisarrerak eta esanahiak kontatuz gero, 12.000 edo”


- **Bergarako auzo guztietan ez da berdin berba egiten.**

- Angiozar eta Ubera antzinan Elgeta izan ziren, eta hiruretan antzera egiten da. Bestalde, Elosuko zati batzuetan gi-

puzkerako eragina dute eta beste batzuetan Osintxun egiten den antzera egiten da. Hala eta guztiz ere, euskarari dagokionez, ez dago desberdintasun haundiegirik auzoen artean. Antzuola eta Bergarako euskarak ere oso antzerakoak dira.


- **Hiztegia argitaratzeko asmorik baduzu?**

- Bai, baina honen aurretik beste batzuk publikatuko dira. Garai batean UNEDeko Euskal Kultur Departamenduak eta Udalak sinatutako hitzarmenari esker, Jaione Isarzelaiak ehungintzari buruz egindakoa argitaratuko da aurki. Gero, ikazkintza, karegintza eta edur-zuloei buruzkoa ere oso aurreratua dago eta laister argitaratuko da; zurgintza eta arozlanari buruzko beste bat ere badago eta baita burdingintzari buruzko bat ere. Horiek guztiak eta nire hiztegia argitaratuko dira, baina ez dakit noiz.



Hiztegia kaleratzeko asmoa du Juan Martin Elexpuru.

Musika kontzertuetara joateko ohiturarik badaukazu?




Angel Agirreazaldegia

Ez naiz kontzertuzalea, garai batean bai baina orain ez. Nahiago dut etxean entzutea, kontzertuetara joatea kostatzen da.



Agustina Herran

Ez naiz joaten, beste gauza batzuk dauzkat etxean egiteko eta... Etxean entzuten dut, irratitik batez ere. Lehengo musika gustatzen zait gehienbat.



Juan Maria Corral

Bai, beti; Banda, Orkestaren kontzertuetara... Klasikoa izugarri gustatzen zait. Etxean ere disko mordo bat dauzkat eta entzuteko ohitura badaukat.



Migel Mari Basterra

Gutxi. Musika gustatu bai, baina beti egoten dira beste gauza batzuk egiteko. Etxean entzuten dut, klasikoa betez ere. Bilbon Operan ere egon izan naiz...



Rosa Mari Calzada

Ez, semeak denbora asko kentzen dit eta. Hala ere, etxean asko entzuten dut, musika zaratatsu hori kenduta...



Jayer Barquero

Ba ez, ez naiz asko joaten, ez didatelako lagatzen... Gustatuko litzaidake joatea; bakailau musika izan ezik, denetik gustatzen zait. Etxean asko entzuten dut.

Ezkontzetarako jangela egokia.
Parkin partikularra,
terraza
eta lorategia.

Lasa Jatetxea,
Bergarako sahiesbidearen
hegoaldeko irteeran.
Telefonoa, 76 10 55
Faxa, 76 20 29




Monumentu nazionala



Lasa
j a t e t x e a

Asteko probaketa-menua

- Galantina,
luma-gorri oilaskoarena,
arto-oliozpinarekin
- ~
- Etxeko ketuak, ogi-xigor gainean
- ~
- Krepetxoak, legatz eta ganbazkoekin
- ~
- Bildots-izterra parrilan erreta,
erromero saltsarekin
- ~
- Ezti-izozkia,
intxaursaltsa coullise-arekin
- ~
- Ogia eta 3. urteko ardoa (1/2)
edo ur minerala
- ~
- Kafea eta petit-four-ak
- 4.900 pezeta + %7 BEZa
- Dena etxean egina



Gehigarriaren inguruan

Aitortu beharra dago, lotsa handiz gainera, Historian atzera egin dugu antzuolarrok. Hemendik aurrera, Berrigararen hamabosteroko gehigarri bat besterik ez gara. Zergatik? Guk geuk horrela erabaki dugulako. Guk aipatu dut. Barkatu, gaizki esanda, ni neu ez nago eta batere ados hartu den erabaki integratzailearekin.

Antzuolako Udalak asmo eta presa handiz ekin zion gaiari bere momentuan: bertako aldizkaria egitea, bitartekoak Udalaren kontu. Idolaz euskara taldeari pasa zitzaion pilota beroa, honek kolpea eman eta erreboteraino bidal zezan. Tartean, baina, ondoko herrikoak etorri behar, geureari ekin barik geurea eurenean egiteko inolako arazorik ez zutela adieraziz. Eskaintza merkeago eta lan txikiagoa eskatzen zuena izaki, pilota beroa galdu egin zen: Udalari gehiago gustatu zitzaion gehigarriaren diru-eskaera; Idolazentzat, berriz, karga bat gutxiago. Hortik erabakia: Berrigararen hamabostean behin Antzuolari buruzko lau orrialde.

Eta erabakia hartuta dagoenez, zer egingo dugu bada euskararen aldeko mila kontuetan sartuta ibili garenok? Tontuak letxe, beste batean sartu! Horregatik, ideiak ados ez egon arren, behar beste laguntza emango diogu gehigarriaren hastapenari, ahal dena hamabosteroko lanean, eta beti ere interesez irakurriko ditugu bertan datozenak, laster irtengo den jaio berria egun batean bere kabuz ibiltzeko gauza izango dela pentsatuz.

Ordura arte, lasai egon, ez dago eta bergararren inperialismoaren hatzaparretan erortzeko arriskurik. Bandoen gerratean antzeko zerbait geratu zen. Antzuolak, txikia izanda, Bergararen mantapean aurkitu zuen babes. Arriskua pasatuta, diruaren truke buruasketasuna lortu zuen. Gehigarriak, tristeza bada ere, Berrigararen barruan lortuko du heldutasuna, bere bidea hartzen duen arte. Oraingoan, baina, ez dugu ordainduko. Ezta txakur txikirik ere!

Beñardo KORTABARRIA



Kobratu barik kolaboratzea

Lau urteko zikloa beteko da datorren udan Bergarako Kirol Elkarteak, eta betiko galdera sortzen da berriz ere: lehendakaritza eta zuzendaritza batzordeko hautagairik izango ote den. Aldian behin berriro azaltzen da zalantza hori, izan ere, inork ez du irabazi-asmo barik zuzendaritzarako erantzunkizunik hartu nahi, eta une honetan are gutxiago, gizartearen aldetik ere ez baita errekonozimendurik jasotzen.

Arazo berbera gertatzen da futbol elkarteak eta musutruk lan egitea eskatzen duten hainbat eta hainbat elkarte eta kultur erakundetan. Kasurik gehienetan kritika besterik ez da jasotzen, eta banaka batzutan txaloa. Azkenaldian areagotu egin den fenomeno baten inguruan gogoeta egiteko balio du egoera honek. Ia ezinezkoa da izaera sozial eta publikoa duten egitura batzuri borondatez eutsiko dion jendea aurkitzea. Kontua ez da ONGek (Gobernuz Kanpoko Erakundeek) bezala, beste bolondres mota bat bilatzea, herri mailako izaera duten entitateen funtzionamenduko beharrei erantzutea baizik, ezin baitute euren jesterioa profesionalizatu.

Ordaindu barik, zaila da denbora galtzeko prest dagoen jendea aurkitzea, gure gizarteak denbora galtzeak dirua galtzea, komentarioak irenstea eta presioak jasatea esan nahi baitu. Klub lokalen kasuan, zuzendaritza guztiek eta kuadro tekniko gehienek kirol mailako ordainaren truke egiten dute lan.

Alderdi politikoek ere jasaten dute bolondrosen krisia, eta lau urtean behin latzak jasaten dituzte hauteskundeetarako zerrrenda bat osatzeko, eta hala ere, sigla batzuen jarraitzaile leial eta sutuz beteta daude kaleak. Zinegotzi izatea ez da lan gozoa, gauza guztien errudun izaten baitira, eta gestio politikoak duen irudi kaxkarra jasan behar izaten dute, beti susmo-pean.

Juan Antonio MIGURA



Herriko plaza ANTZUOLIA Tf: 78 70 66

Juan Cruz

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak
jaunartze erreportaiak
momentuko argazkiak

BITXITEGIAK

Marrokineria
Erlojuak
Bitxiak
Aukera zabala
oparietan

■ Txokolatada

Martxoak 8 **Emakumearen Eguna** ospatzeko, Udaleko Ongizate Zerbitzuak eta HHI-EPA zentroak antolatutako txokolatada izan zen joan zen eguen arratsaldean Oilagorra elkartean. Bertan, Udalak eta HHI zentroak antolatutako



yoga, eskulanak eta beste hainbat ikastarotan parte hartu izan duten emakumeak bildu ziren, 40 bat guztira. Merienda zuzeneko musikaz lagunduta izan zen eta txokolatea dastatu ondoren, emakumeek gustora egin zuten dantzan euren eguna ospatzeko. Zorionak guztiei!!

■ Kapirixokoen aurkikuntzak

Kapirixoko kideek **harri leunezko aizkora bat eta suharrizko kutxillo zati** baten punta (bizkar zanpatudun igeki zati bat) aurkitu dituzte. Aizkora orain dela 5.000 urte ingurukoa da, **Eneolito edo Kobre arokoa** hain zuzen ere. Orduan ez zen oraindik metalik ezagutzen eta honelako aizkorak nahiko arruntak ziren trikuharrietako hilobiratze prozesuetan. **Agerreburuko trikuharrian** aurkitu zuten eta tipologia aldetik nahiko txikia da (7,5 x 3,5 zm.). Kutzebakarren agertutako suharrizko kutxillo zatiaren punta aurrekoa baino zaharragoa da oraindik eta materiala lantzeko edota egurra zuritzeko erabiltzen zen. Kapirixokoek bi pieza horien aurkikuntzaren berri emateko asmoa daukate zientzia-aldizkariren batean. Argazkian, harri leunezko aizkora ikus dezakezue.



ID

INFORMATICA
DELTA

Ordenadore eta inprimagailuen salmenta eta konponketa

kontsumibleak:

disketeak, filtroak, liburuak, tinta-kartutxoak, zorroak...

multimedia:

soinu-tarjetak, bozgorailuak, CD-ROMak, jokoak, enziklopediak...

enpresetarako zerbitzuak:

sare-komunikazioak, instalazioak, segurtasun-datuak...

Artekalea, 15 behea Bergara Tl. 76 30 57



■ Txukuntze lanetan

Herriko **kaleak asfaltatzeko proiektuarekin** jarraituaz, joan zen astean Boni Laskurain kalea txukuntzeko lanak hasi dira. Datozen asteetan, kalea asfaltatzeaz gain, **jarleku berriak** eta **zakarrontziak** jarri, **kale zintarriak berriztu** edo **arbolak inguratzeko hesitxo batzuk** jarriko dituzte Copalsa enpresako langileek. Era berean, Basarte eta Alkabieta kaleetan ere asfaltatze lanak egingo dira. Aurrekontua ia **bost milioi** pezetakoa da. Horrez gain, herrian diren zebra bideak pintatu dira berriz. Heltzear dagoen udaberriari begira, herriko kaleak itxura hobetuaz...

Zertan dihardute ba?



Iker Elgero 17 urteko ikasle bergararra saritua izan da Jaurlearitzak ematen dituen Batxilergoko Sari Bereziekin. Sari hori eskuratu ahal izateko, beharrezkoa da Batxilergoan 8,5eko media lortzea. Iker Elgero HSAOL Batxilergoko 2. mailan ari da Bergarako Ipintza Institutuan. Gipuzkoan, Ikerrekin batera, beste 6 ikasle izan dira sarituak, Donostian egin zen proba gainditu ondoren. Apirila aldera Estatu mailan egingo den antzeko proba batera aurkeztu ahal izango dira. Ikerrek oraindik ez du erabaki zein karrera ikasi institututik irtendakoan.

■ Justo Garate beka

Marta eta Susana Truchuelo, iaizko Justo Garate Arriola beka jaso zuten ahizpa andoaindarrak Bergaran izan ziren eguastenean.

Marta eta Susana Historian lizentziatuta daude eta euren proiektuak *"Tolosa eta Gipuzkoako Diputazioa: oligarkia baten eraketa eta finkapena (XVI.-XVII. mendeak)"* izenburua dauka. Lana urrirako amaituta egon beharko da eta martitzenean lehen txostena aurkeztu zuten Susanak (ezkerrean) eta Martak.



AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30



Bego Barrena

Orain dela 21 urtetik hona Miguel Altuna institutuko idazkaria dugu Bego Barrena. Edifizio zaharrean lan egiten du eta bere lana, nagusiki, datu bilketa egitea da. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba dituzte.

- Ikasleekin ala irakasleekin moldatzen zara hobeto?
- Erlazio diferentea da baina guztiekin ondo.
- Lanik gorrotagarriena?
- Karpetak atera eta gordetzea.
- Eta gustokoena?
- Ordenadore-lana.
- Asteko egun bat?
- Ostirala.
- Miguel Altunako edificzio zaharra ala berria?
- Zaharra.
- Txikitan ikasle ona al zinen?
- Normala.
- Oroitzapen on bat?
- Seme-alabak jaio zirenean.
- Negar egin duzun azken aldia?
- Miren lankidea hil zenean, iaz.
- Zer da pertsonengan gehien apreziatzen duzuna?
- Adiskidetasuna.
- Zenbat ordu egiten duzu lo?
- 6-7 bat.
- Zodiako zein zeinutakoa zara?
- Aries.



“Ikasle eta irakasleekin ondo konpontzen naiz eta pertsonengan adiskidetasuna da gehien apreziatzen dudana.

Korrikan ez dut parte hartuko baina ikustera joango naiz”

- Horoskopoa irakurtzen duzu?
- Batzuetan.
- Hobby bat?
- Bizikletan ibiltzea.
- Zenbatero ibiltzen zara?
- Eguraldi ona badago, ia egunero.
- Ikusitako azken filmea?
- Sleepers, gustatu zitzaidan.
- Aktore bat?
- Robert De Niro.
- Idazle bat?
- Isabel Allende gustatzen zait.
- Telebistan ikusi ezin duzun programa bat?
- Lo que necesitas es amor.
- Telebistako iragarki bat?
- Coca-Colak politak dauzka.
- Prentsa larrosa irakurtzen al duzu?
- Ohiturarik ez daukat, baina irakurtzen dut.
- Prentsa larroseko pertsonaia bat?
- Ez zait inor gustatzen.
- Eta bereziki gutxien atsegin duzuna?
- Ana Obregon.
- Korrikan hartuko duzu parte?
- Ikustera joango naiz.
- Musika kontzertuetara joateko ohiturarik, bai?
- Ez, ez daukat.
- Zer egingo duzu Aste Santuan?
- Bergaran geratuko naiz.
- Primitivan 1.500 milioi irabaziz gero, zer egingo zenuke?
- Ez dakit, diru gehiegi da.
- Bidaiaren bat beharbada...

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorentzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

J.M. IZAGIRRE

Igeltseritza

Era guztietako igeltseritza lanak

Loidi Baserria ANGIOZAR
☎ 76 56 86

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

LIZAR

ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

ETXEBIZITZA

Antzuolan pisua eta gara-
jea salgai. ☎ 76 62 15.

Ganbara amueblatua sal-
gai. Berria, prezio interes-
garria. ☎ 76 47 27.

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 54 98.

Garajea salgai edo alokai-
ruan Burdiñaten. ☎ 76 40 03.

Pisua salgai Donostian,
Amaran. ☎ 76 31 79.

Pisua salgai Martokuan.
☎ 76 59 96.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 18 46.

Garajea salgai Santa
Marinan. ☎ 76 18 95.

Pisu amueblatua salgai
Mugertza kalean, 3. zenba-
kian. ☎ 76 53 79.

Etxe amueblatua alokai-
ruan Koldo Eleizalden.
☎ 76 56 02 (eguerdiz).

Pisua salgai Aranerrekan,
Bolun. Altzariekin, 80 m2,
egoera onean.
☎ 76 47 76 (gauzez).

Pisu bat alokairuan hartu-
ko genuke. ☎ 76 53 79.

Etxe amueblatua salgai
Deban. ☎ 76 62 27.

Garajeak salgai Torrekuian
eta Espoioian. ☎ 76 33 88.

Pisua salgai Zarautzen.
☎ 76 53 69/13 34 67.

DENETARIK

Peavey anplifikadorea
salgai. ☎ 76 16 32.

Sony pletina bikoitza sal-
gai. ☎ 76 05 38.

Renault 11 kotxea (SS-
AC) eta Vespa motorra (VI-
I) salgai. ☎ 76 08 51.

Citroen Visa kotxea
egoera onean salgai.
80.000 Km. ☎ 76 05 37.

Nintendo kotsola bat
salgai. 2 mando, 100 joku.
☎ 76 38 71 (Igor).

Irratizale aparailua sal-
gai. Talki Alan 38 CB 27,
base antenak. ☎ 72 13 37.

Ford Orion (25.000 Km)
eta Lada Niva (55.000) ko-
txeak salgai. ☎ 76 39 93.

Betaurreko graduatuak
aurkitu ditut ☎ 76 21 39.

Sango karro-denda salgai.
250 Kg. ☎ 76 33 92.

Mendiko eskiak (1,80 m)
erosiko nituzke. ☎ 76 05 38.

Txirrindulari bizikleta sal-
gai. ☎ 76 50 22 (Karlos).

Gasolinako kotxe teledi-
rijitua salgai. ☎ 76 04 63.

Masajea emateko kamila
erosiko nuke. ☎ 76 24 66.

Ume-kotxea eta jaunar-
tzeko jantzia saltzen ditut.
☎ 76 30 13.

Braco ehiza-txakurra gal-
du da. ☎ 76 17 82.

LANA

Mate, fisika eta kimika kla-
seak. ☎ 76 70 40.

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Neska bat behar da ume-
ak zaintzeko. ☎ 76 31 11.

Elosuko Elurmendi elkarte-
an garbiketak egiteko lagun
bat behar da. ☎ 76 64 91.

Garbiketa lanak egingo
nituzke. ☎ 76 71 21.

Etxeko lanak egiteko nes-
ka behar da. ☎ 76 91 30.

OHO eta BBBko klaseak
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

OHO klaseak ematen di-
tut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika
klaseak. ☎ 76 24 31.

Haurrak edo zaharrak
zaindu eta etxeko lanak e-
gingo nituzke. ☎ 76 06 12.

Klinika auxiliar batek za-
harrak edo helduak zainduko
lituzke. ☎ 76 64 47.

Neska euskalduna beh-
ar da arratsaldez haurrak
zaindu eta etxeko lanak
egiteko. ☎ 76 30 37.

Emakume bat eskeintzen
da astebukaera eta jaiegu-
netan egiteko. ☎ 76 50 46.

Enpresaritzan diploma-
tuak OHOk klaseak emate-
n ditu. ☎ 76 47 67 (Nere).

Neska batek haurrak edo
zaharrak zaindu eta etxeko
lanak egingo lituzke.
☎ 76 40 85 (goizez).

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Telefono, 761051

R. S. I. 209374 - SS

BERGARA

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

GOROSTI Taberna

☎ 76 62 96

Zurrategi Plaza ANTZUOLA

HILARIO AZKARGORTA ERAKUSKETA



Argazkiak
'goma
bikromatatu'
erara.
XIX mendeko
teknika.

NAHIKARI taberna
Masterreka, 20 Tl. 76 57 71

70eko Bergara zinean

Euskal fimategira, orain dela 20 urte grabatutako 4 pelikula

Gaur egun desagertuta dagoen Bergarako Kultur Ekintza elkarteak Udalarari eman zizkion lau pelikulak Euskadiko Fimategian gordetzea erabaki zuen Udaltzarak joan zen egueneko Plenoan.

Pelikulak Super 8an grabatu zituen Roman Larrañagak 70eko hamarkadan Bergarako Kultur Ekintzaren enkarguz.

Orain dela hiru urte desegin zenean, BKE elkarteak bere material eta artxibo guztiaren dohaintza egin zion Udalarari, tartean aipatutako lau pelikulak. Amaia Labaien Islada bideogelako arduradunak eta Arantzazu Oregi Udaleko artxibokoak pelikulak ikusi ondoren, Euskadiko Fimategian gordetzeko eskaria egin zioten Udalarari eta Udaltzarak oniritzia eman zion joan zen eguenean.

Orubete inguruko bideoa

Plenoan hartutako erabakiaren arabera, Euskadiko Fimategiak deusitoan gordeko ditu lau pelikulak, nahiz eta pelikulen jabetza Udalarena izan.

Bestalde, Udalak lau pelikulak biltzen dituen 50 minutuko bideoa jasoko du eta eskatzen duen edozeinek ikusteko aukera izango du. Pelikula horien irudiak erabiltzeko Udalaren baimena beharoko da.



Argazkian agertzen den moduko irudiak agertzen dira pelikuletan.

70eko hamarkadako herriko giroa

Regino Valle, Bergarako Kultur Ekintzako kide izandakoak esan digunez, *“asmoa 6 bat orduko pelikula egitea zen, baina azkenean gutxiago grabatu zen, lan baundia eskatzen baitzuen. Oker ez banago, 100.000 pezeta inguru gastatu ziren”*.

Lau pelikulak koloretan grabatuta daude eta lauretan 70eko hamarkadako herriko gizarte, hezkuntza, kultura zein jai giroa isladatzen dira.

“Aitonak” izeneko pelikulan (1974ko Gabonetan egina), jubila-

tuen egoitza Seminarioan zegoenean hartutako irudiak jasotzen dira. Gabonetako jai giroa (kintoak, diru biltzea, txikiteoa, karta jokoak e.a.) eta ekitaldi erlijiosoak ere agertzen dira. Pelikulak 4 minutu eta 20 segunduko iraupena du.

“Haur festa” izenekoan, 1976. urtean egina, Aranzadi Ikastolako haurrak Gabonetan kantatzen eta Santa Ageda bezperan talde bat kantuan agertzen dira eta 10 minutuko iraupena du.

“Bergarako bistak” izenekoan, oster, hiriguneko zein herriko hainbat auzotako irudiak agertzen dira eta baita Loiola-

ra ume talde batek egindako bisita eta San Martin plazan grabatutako sokamuturra ere. Pelikula honek 15 minutu irauten du.

Azkenik, “Manifestazioak” izeneko pelikulan hainbat gertaera politiko (hauteskundeetako propaganda, pankartak edota entzerronak), haurren eguna, jaiak, umeen jolasak eta Erregeen kabalgata jasotzen dira, besteak beste. Pelikulan Luis Lascurain, Jose Luis Elkorro eta Jose Antonio Zabala, Bergarako alkateak izandakoak eta Pako apaiza eta Maria Victoria andereñoa ere agertzen dira. 20 minutuko iraupena du; 70eko azken urteetakoa da.

70ko hamarkadan Roman Larrañagak koloretan grabatutako lau pelikula dira eta Gabon inguruko edota hauteskundeetako irudiak agertzen dira

1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A ZE FLAXA ETXAGI	43	16	81	26
2. ERROTAGAIN	41	16	75	26
3. JAUJA OH ZEREZOS	33	15	52	36
4. BAR CANALEJAS	29	15	54	42
5. BILDURBAREK OPEL/LAM	20	16	66	61
6. ARLOTEAK/OILAGORRA	17	16	60	41
7. OGIZUN	16	15	37	60
8. PAGOMENDI	16	16	39	54
9. ORTZI	15	16	35	55
10. MONGATXURRA	14	14	39	52
11. AZPEITXI JATETXEA	14	15	48	53
12. MADURA INDUSTRIAS GOI	11	15	40	69
13. UFALA	8	16	33	50

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARTUSAMAK BERGATRANS	30	16	59	39
2. KAYAK OS JARDINEIROS	29	16	70	44
3. ETXAGI	27	15	55	51
4. UVE BIKOITZA JAM	25	16	42	57
5. HALTZARI	25	16	49	37
6. ERI	22	15	48	42
7. SOROPOTROAK	21	15	41	33
8. LA JUVE	21	16	57	42
9. AGIÑASPI	20	16	45	52
10. EZINLEIKE	19	16	48	56
11. AUTOBEREZI	16	16	41	83
12. AGIRREBEÑA JATETXEA	15	15	43	46
13. INDARGORRI	14	16	36	86

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	42	16	73	26
2. FAC	36	16	79	37
3. PJS	32	17	64	41
4. NEKROFIKOS	30	17	64	62
5. TXIPIRON	28	16	49	35
6. NAHIKARI HOOLIGANS	26	17	59	48
7. JAKINA PATXARAN TEAM	24	17	63	53
8. MOSKIS	18	16	50	30
9. IGANDEKOAK	15	16	36	58
10. EH BITERRAK	15	16	38	56
11. CONSTRUCCIONES BERGARA	11	16	35	87
12. MRW	10	16	33	61
13. GANBARA	10	16	32	64

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITOU	48	16	115	23
2. ARBE KIROLAK	40	16	97	38
3. ETENGABE	31	16	49	37
4. OSINTXU	28	16	55	43
5. SLO	28	15	59	22
6. MATXAKATEGI	26	16	60	33
7. XURRUPAK	24	16	37	59
8. KOMANDO PIPERRAK	19	16	51	75
9. AMILOTX	16	16	36	54
10. PATA NEGRA	15	16	38	90
11. PANORAMIX	13	15	53	58
12. POLIDEPORTIVO TABERNA	13	17	39	85
13. ALDOKA MALDOKA	5	16	33	59
14. PITTIKAK	0	0	0	0

Jokoz kanpo



Iñaki Gorroño

ETXAGI

ZER MODUZ TXAPELKETA?

Oso ondo doa, espero baino hobeto.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA?

Onena, konstantzia eta guztiok etortzen garela jokatzera eta txarrena, partiduetako azken minutuak. Denbora horretan partidu asko galdu edo berdindu baititugu.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Ez.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Eguraldi ona egiten badu arratsalde, bestela goizez nahiago.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Etxagi.

JOKALARIRIK ONENA?

Andoitz Garitano.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

14 eta 1, Jauja OH Zerezos taldeari.

ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO DUZUE?

Lehenengoak.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Ronaldo.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Michael Jordan.

EUSKAL HERRIKOAK?

Jose Mari Olazabal.

JATEKO PLATER BAT?

Txuleta.

EMAITZAK

MONGATXURRA-BILDURBAREK OPEL/LAM	4-8
PAGOMENDI-ORTZI	6-3
OGIZUN-ERROTAGAIN	1-5
AZPEITXI JATETXEA-MADURA	2-4
A ZE FLAXA ETXAGI-UFALA	7-1
BAR CANALEJAS-BILDURBAREK	2-9
JAUJA OH ZEREZOS-ARLOTEAK	2-1
KAYAK OS JARDINEIROS-UVE BIKOITZA	7-2
LA JUVE-HALTZARI	2-2
AGIÑASPI-INDARGORRI	5-0
AUTOBEREZI-EZINLEIKE	5-2
SOROPOTROAK-ARTUSAMAK	0-3
ERI-ETXAGI	4-3
NAHIKARI HOOLIGANS-PATXARAN TEAM	1-3
GUADALEST-GANBARA	8-1
EH BITERRAK-PATXARAN TEAM	2-2
IGANDEKOAK-MOSKIS	1-2
MRW-TXIPIRON	2-6
PJS-NEKROFIKOS	3-4
ALDOKA MALDOKA-AMILOTX	2-5
KOMANDO PIPERRAK-POLIDEPORTIVO	4-2
XURRUPAK-PATA NEGRA	1-4
MANITOU-MATXAKATEGI	4-3
OSINTXU-PATA NEGRA	0-4
XURRUPAK-MATXAKATEGI	4-3
ETENGABE-POLIDEPORTIVO TABERNA	7-3
MANITOU-ARBE KIROLAK	7-2

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: ETENGABE-AMILOTX • HOOLIGANS

Zapatuan kanpoan

10:00: NAHIKARI HOOLIGANS-GANBARA • AMILOTX

Domekan barruan

09:00: KOMANDO PIPERRAK-PANORAMIX • ALDOKA MALDOKA

10:00: OSINTXU-ALDOKA MALDOKA • SLO

11:00: SLO-ARBE KIROLAK • OSINTXU

16:00: A ZE FLAXA ETXAGI-ERROTAGAIN • OGIZUN

17:00: OGIZUN-AZPEITXI JATETXEA • ERROTAGAIN

18:00: KAYAK OS JARDINEIROS-INDARGORRI • SOROPOTROAK

19:00: SOROPOTROAK-ERI • ARTUSAMAK

20:00: LA JUVE-ARTUSAMAK • ERI

Domekan kanpoan

09:00: AGIRREBEÑA JATETXEA-ETXAGI • EZINLEIKE

10:00: UVE BIKOITZA JAM-EZINLEIKE • ARLOTE

11:00: ARLOTEAK-BILDURBAREK OPEL/LAM • UVE BIKOITZA

16:00: CONSTRUCCIONES BERGARA-PATXARAN TEAM • FAC

17:00: GUADALEST-FAC • BAR CANALEJAS

18:00: BAR CANALEJAS-MADURA IND. GOI • GUADALEST

ESKOLA KIROLA

11:00: MARIAREN LAGUNDIA-LOS TXISTIS

12:00: MP-MIGUEL ALTUNA

12:00: WALTER-INSTITUTUA

T XINPARTAK

Gorka Martin pilotaria finalera

Gorka Martinek 18 eta 8 irabazi zion Mintegi tolosarrari kadete mailako Euskadiko Pilota Txapelketako finalerdian. Partidu bikaina egin ondoren Martinek buelta eman zion kanporaketari, Bergaran jokatuako partiduan 18 eta 17 galdu baitzuen. Finala Ubera II.enaren kontra jokatu du zapatuan arratsaldeko 5etan Tolosako Beotibar pilotalekuan. Igor Gutierrezek, berriz, junior mailako finalerdiaren 2. partidua ere galdu egin zuen eta kanpoan geratu da.

BKEren zozketa

Realak eta Real Madriderik astelehenean jokatu duten partidua ikusteko BKEk zozketatutako lau sarrerak 2.697 zki.ari egokitu zaizkio.

Jubenil mailako eskubaloit taldea lehen postuaren bila

BKEko jubenil mailako taldea denboraldi bikaina egiten ari da eta Gipuzkoa mailako txapelketan 2. postuan sailkatuta dago. Joan zen astean 8 golegatik Elgoibarren galdu arren, oraindik eskura dute Zarautz liderra. Liga bukatzeko 5 partidu geratzen zaizkie, baina ezin izango dute mailaz igo. Izan ere eskubaloian mailaz igotzeko talde kadetetak eta jubenilak, biak, sailkatu behar dira eta BKEko kadeteek ez dute igotzeko aukerarik.

Taldearen entrenatzailea joan zen urtera arte senior taldeko entrenatzailea izan den Josetxo Muniategi da eta berak espero baino hobeto ibili dira jubenilak. *"Taldea hartu nuenean ez nuen espero borren ondo ibiliko ginenik, baina talde jokoa eginez, emaitza onak lortu ditugu. Ikasketek denbora asko kendu arren, jokalaria gogo handiarekin dabilta. Azpimarratzekoa da egi-*



Denboraldi bikaina egiten ari dira Josetxo Muniategiren mutilak.

ten dugun jokoa taldekoa dela, jokalaria guztiek maila antzerakoa baitute eta maila hori altua da" esan digu Muniategik.

Astebukaera honetan Aloña Mendiren kontra jokatu dute Labegaraia-eta kiroldegian eta partidua irabazteko aukera asko dituztela adierazi du jubenilen entrenatzaileak. Oñatin jokatuako partiduan errez irabazi zuten bergararrek eta zapatuan ere irabaztea espero dute.

Datorren urtean taldeko jokalaria asko senior mailako taldera igoko dira eta gainontzekoek taldean jarraituko dute. *"Jokalariek nahi baldin badute senior taldera igoko dira kalitatea eta gogo baitute. Liga apirilaren 15ean bukatuko dugu eta ondoren Gipuzkoako kopa jokatu dugu. Horrela jarraitzen badugu uste dut zerbait egiteko aukera izango dugula"* esan digu Muniategik.



Sastrek errekorra lortu Gorlan

Carlos Sastre (Banesto) izan zen joan zen igandean jokatuako Gorlako igoeraren irabazlea eta probaren errekorra lortu zuen 20 minutu eta 59 segunduko denbora eginez. Banestokoak 1991n Alfredo Irustak egindako errekorra 9 segundutan hobetu zuen. Bigarren postuan, 12 segundutara, Francisco Mancebo (Banesto) sailkatu zen, lau laguneko taldetxo bati denbora emanez. Sastre Avilakoa da eta parte hartu duen bi probetan lehenengo postua lortu du. Beterano mailako lasterketan Jose Enrique Fernandez kantabriarrak irabazi zuen, Luis Miguel Arbuluri esprintean aurreratu ondoren. Jon Unamuno izan zen lehen bergararra 51. postuan eta sari berezia jaso zuen.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-Hondarribia

Preferenta maila.
Domeka. 16:45. Ipintza.

◆ Bergara-Real Sociedad

Lehen mailako kadeteak.
Zapatua. 17:15. Ipintza.

◆ Bergara-Soraluze

2. mailako kadeteak.
Domeka. 11:15. Ipintza.

◆ Bergara-Usurbil

Neskak.
Zapatua. 15:30. Ipintza.

NESKEN 3. FUTBITO
TXAPELKETA

◆ Power-Gu Geu

Zapatua. 16:00. Miguel Altuna.

◆ LTB-Burdinezko Damak

Zapatua. 16:00. Miguel Altuna.

◆ Potzu-Blue Star

Zapatua. 17:00. Miguel Altuna.

◆ The Hurricanes-PWA

Zapatua. 17:00. Miguel Altuna.

SASKIBALOA

◆ BKE-A Atletico SS

Senior neskek.
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

◆ BKE-Etxadi

Senior mutilak.
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

◆ BKE-Askatuak

Junior mutilak.
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

ESKUBALOA

◆ Begara-Aloña Mendi

Jubenil mutilak.
Zapatua. 18:00. Kiroldegia.

◆ Begara-Usurbil

Jubenil neskek.
Zapatua. 19:15. Kiroldegia.

◆ Begara-Aloña Mendi

Kadete mutilak.
Domeka. 10:30. Kiroldegia.

◆ Begara-Usurbil

Senior mutilak.
Domeka. 12:15. Kiroldegia.

Benigno Menor

Zikloturismoaz gozatzeko

Benigno Menor "Txiki", Bergarako zikloturismo taldean dabil buru belarri, saskibaloian jokatu ondoren. Eguraldi onarekin batera hasi dituzte igandero irteerak eta ondorioz, Euskalerriko errepideek Bergarako zikloturisten berri izango dute.

- Noiz egiten dituzue irteerak?

- Martxotik urrira arte, abuztan izan ezik, igandero egiten dugu irteera. Hasierako irteerak motzenak izaten dira eta forma hobetu ahala kilometro gehiago egiten ditugu. 75 km. egiten hasiko gara eta ekainean 130 kilometrotik gorako irteerak egingo ditugu.

- Zenbat lagun joaten zarete?

- Sasoi honetan 40 lagun inguru joaten gara; baina udan jende gutxiago etortzen da. Gehienok 30 urtetik gora ditugu; zaharrenak 55 inguru.

- Tokiak ezagutzeko aukera ere emango du zikloturismoak, ezta?

- Bai, halere horri ez diogu garrantzia handiegirik ematen. Jendea zikloturistentzat antolatzen diren lasterketarako gertatzen da irteeretan. Bilbo-Bilbo klasika, Medina de Pomar, Miranda de Ebroko klasiketara joaten gara. Gainera, aurtentzen Sabinanigon (Huesca) ekain bukaeran egiten den "Quebrantahuesos" proba joateko asmoa dugu taldeko batzuk eta horra joateko ondo prestatuta egon behar da. 205

km ditu probak eta Somport, Portalet eta Marie Blanche mendateak igo behar dira.

- Zuekin harremanetan jartzeko zer egin behar da?

- Astelehenetan iluntzeko 7etatik 8etara eta zapatutan eguerdiko 12etatik ordubatera klubak San Martin plazan duen egoitzan izaten gara. Gurekin harremanetan jarri nahi duena horra joan daiteke edo bestela igandero egiten ditugun irteeretara etor daiteke. Martxoan zehar goizeko 9:15etan irtengo gara plazatik eta apirilean ordu


laurden lehenago irtengo.

- Zuen artean ba al dago "pike"rik?

- Bai, beti dago zer bait, zeren batzuk hobeto ibiltzen dira; baina sanoak izaten dira. Halere, irteeretara edozein etor daiteke, hori bai, gutxieneko prestakuntza fisikoa izatea garrantzitsua da.

- Errepideetan nola moldatzen zarete?

- Normalean ez dugu arazorik izaten eta gidariak lehen baino gehiago errespetatzen gaituzte. Halere, badira batzuk aurreratzen gaituztenean ez dutenak errespetatzen gutxieneko distantziarik.



"75 kilometroko irteerekin hasiko gara".

"Gidari batzuk ez dute gutxieneko distantzia errespetatzen"



Argazkia: Alberto Herran

Martokoko eskolako haurrak, 1973

Ikasle talde honek Martokoko eskolan eman zituen lehen urratsak irakaskuntzan. Argazkia 1973eko abenduan aterata dago eta garai hartan ikasleek 5-6 urte izango zituzten. Klasean, Isabel andereñoaren laguntzaz, zenbaki eta letren *sekretuak* ikasi, marrazki dotoreak egin eta beste hainbat gauza egingo zituzten... Lehendabiziko lagunak ere orduan ezagutuko zituzten, errekreoan, elkarrekin egindako jolasetan, auzoan. Ziur argazkiko gehienek ondo gogoratzen dituztela haurreskolako kontuak. Besteei ondo etorriko zaie lagunartean argazkia berriz ikustea.

Horra hor euren izenak, ezkerretik eskumara:

Goiko ilaran: Jose Ignacio Meabe, Itsaso Gallastegi, Inmaculada Cid, Agustin Sanchez, Ane Aguila, Marisol Arietaleanizbeaskoa, Argiñe Ormaetxea, Igone Agirrebeña, Isabel andereñoa, Garbiñe Garcia, Rosa, Marisol Barreras, Martin Balzategi eta Gorka Garin.

Erdian: Alejandro Centeno, Bartolome Martinez, Luis Lonbide, Fernando Fernandez, Gotzon Ibarra, Carlos Rodriguez, Emilio Cid, Alberto Herran, Imanól Ruiz, Felix Barrocal, Lucio Reglero, Carlos Azkarate-Askasua eta Manuel Moreno.

Aurrean: Josue Lazkano, Eli Losada, Aitor Osa, Jesus Mari, Paco Gimbert, Mari Karmen Zabaleta, Kontxi Quintas, Jesus Mari Caballero, Alfonso Burgos, ezezaguna, Arrate Madariaga eta Rafa Bikuña.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21


zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

Automobil aseguruak

Mapfre abantailak



Zure kotxeako
aseguruaren
abantaileri buruzko
zehaztapen guztiak
emango dizkizugu.
**Zatoz eta
galdetu!!**



MAPFRE
MUTUALIDAD

Simon Arrieta 3, Bergara
☎ 76 28 79 / 76 18 80



LILURA
Edertze Institutua

DEPILAZIO PROGRESIBOA

- Akabo ileak!!
- Aste gutxitan antzemango duzu diferentzia.
- Uda honetan eroso eta seguru sentitzeko.

Aste Santuan
eskaintza berezia **solariumean**

Informazio gehiago, Bidekurutzeta 7an. Telefonoa: 76 31 71

UDABERRI-UDAKO
MODA BERRIA!

UNITED COLORS
OF BENETTON.

Maalako Errebala, 13
ARRASATE